

RÉVEIL BASQUE ASTEKARI ERREPUBLIKANO ELEBIDUNA (1886-1894)

Xabier ALTZIBAR

1. ZOKO ILUNETIK JALGITZEKO ORDUA

(*Le Réveil Basque* (Paue, 1886-VII-11–1894-XII-30) aipatua bezain ezezaguna da oraino. Vinsonek eman zituen *Réveil* eta *Eskualdunaren* xehetasun larrienak: hura errepublikanoa eta hau antierrepublikanoa eta apaiztiarra zela, baina biak parte frantsesez eta parte euskaraz idatziak. Huts ttipi bat eginez ordea: *Réveil* agorrilaren 1ean sortua zela esan zuen (1891: 628-629 zbk, 399-400. or.). Lafittek Vinsoni jarraitu zion, bere bozkarioa ezin gordez haatik, esanez *Eskualdunak* ehortzi zuela *Réveil* apaiz-jalea 10 urteren buruan (1941:68; 1971:24); beraz ez bide zuen *Réveil* ezagutu. Lafitteri jarraitu zion Villasantek, bere aldetik Baionan ateratzen zela gehituz (1979:198), eta Villasanteri S. Onaindiak (1974:346). Bere denboran *Eskualdunak* beste bekatu bat egotzi zion *Réveili*: Candau kudeatzailearen euskara gaizto eta farregarria (“Il s’en f...”, E 128, 1889-X-25; “Candauren eskuararen chantilun bat”, E 183, 1890-XI-14).

Lafittek bezala, euskal literaturaren historiagile anitzek, *Réveil* laburki aipatzen badute, haren ondotik kontserbadoreek *Eskualduna* sortu zutela eta hark *Réveilek* baino luzazago iraun zuela jakinarazteko baizik ez da. Puntu honi datxekiola, ohartararazi behar da *Réveil* izan zela lehena, ez *Eskualduna*; *Réveilek* behartu zuela *Eskualdunaren* sortzea, beren baitarik xuriek ez baitzuten 1887an behintzat kazeta elebidunik sortuko, eta *Réveil* 1894ko abenduaren azkenetan agertzetik gelditu bazen ere, haren ondotik gorriek (*Le Pays Basque-Eskual-Herria* astekari elebiduna (*Eskual-Herria* izenez ezagunagoa) jalgiarazi zutela beste 10 urte baino gehiagoz (1898-X-1-1914?).

Oraintsuagoko bibliografia aipatu zenbaitetan zuzen esaten da *Réveil* kazeta errepublikanoa zela, baina elebiduna zelakoa aiantziz (J. Bilbao 1977); orobat entziklopedietan (Auñamendi 1995; Harluxet 1995). Zorionez xehetasun hori ageri da aldizkariaren katalogo zenbaitetan (Diaz Noci 1994). Literaturaren historiaren aldetik begiratuta, Urkizuk dio *Réveilen* euskarazko artikuluek ia huts-hutsik laborari gaiak dituztela solas, zenbaitek emigrazio-koak eta beste batzuek *Eskualdunaren* erasoei erantzuten dietela, erantsiz bestalde, hizkuntza, historia edo politika aldetik interesgarriagoak direla (2000:363). Noski, kazeta politiko gisa, aldi hartako Euskal Herriko politika eta gizarte gaiak ditu hizpide, uste baino zabalagoak ordea; baina bertzalde, aldi hartan politikak literaturan sortarazi zituen emaitzak ez dira gutxiestekoak eta horien lekuko dira *Réveileko* bertso eta testu anitz.

Beraz *Réveil* garai batez apaiz euskalzaleen madarikazio guztiekin zokoratua izan da. Ideologia eta politika aitzakiak ulergarriak ziratekeen beste garai batean: hain katolikoak baitziren euskaldunak (boza gorri ematen zutenak ere bai), hain hertsiki estekatuak elkarri elizgizonak eta euskara, eta halako guduak III. Errepublikan non halabeharrez euskarazko kazeta gorriak eta xuriak sortu beharrak baitziren elkarren kontra borrokatzeko. Estatuaren eta Elizen arteko Bereizkunde Legearen (1905) ondorioz kalapitak eztituz joan ziren; izan ere Andere Errepublika eta Aita Saindua elkarrekin ezkontarazi zituzten, eta 1905eko dibortzioak luzara on egin ziela batzuei eta besteei ez da dudarik. Borrokak sortarazi eta biziarazi zuenez, borroka bere bizienean zegoeno iraun zuen *Réveilek*, eta halaber haren ondoko *Eskual-Herriak*. Gorri eta xurien jokaera noraino iritsi zen jabetzeko, hona alde batekoen eta bestekoen erakusburu bana, 1905 aitzin eta ondokoak: 1902an gorriek apezak euskaldun haurrei katixima frantsesez irakastera behartu zituzten, paga kentzeko mehatxupean (*Eskual-Herriako* idazleak prefetaren manuaaren alde agertu ziren); 1810ean J. Etxepare bere *Buruxkak* erretiratu beharrean gertatu zen, besteak beste apezak eskolemailegoatik kendu behar zirela idazteagatik, eta 30 urte beranduago ere (1941), Lafittek liburua berriz argitaratzean, bi kapitulu kendu zizkion, hain zuzen irakaskuntza eta amodio gaietan egilearen pentsamendua agertzen zutenak.

Eta *Réveil* han datza zokoratua oraino, gure ikerketen ahuleziagatik. Bilduma bat Pauen egoteak ez du erraztu ikerketa. Aipatu behar da hala ere B.

¹ (*Le*) *Réveil basque*. Bibliothèque square Paul Lafond, 64000 Pau. Ee 3178. Bi liburukitan. Ondoko agerraldia falta dira (zenbakia eta urtea): 10, 1888; 43, 1890; 31-39, 1892; 11, 20, 1893. Nire eskerrak biblioteka horretako Patrimonio Zerbitzukoari eta bereziki Maïté Aguërori.

Larzabalen artikulua labur bezain mamitsua Elizanburu, Otxalde, Guilbeau eta errepublikanoen Euskal Bestez (1983: 323-338). Ordu da beraz, ideologia eta ezazola bazter utzirik, Euskal Herriko gorri eta xuriek zer pentsatzen eta zer idatzi zuten, frantsesez eta euskaraz, jakin dezagun. *Réveilen* berean zortzi urtez euskaraz idatzitako testuen kopurua handia da. Edukiari dagokionez, alderdikaria da, noski, baina irakurri beharrekoa garai garrantzitsu hura eza-gutu nahi bada, zeren, *Eskualduna* batetik, eta *Réveil* eta *Eskual-Herria* bestetik, erdikinak baitira, elkarrekin Euskal Herriaren ikuspegia osatzen dutenak.

Artikulu honetan ez dugu azerketa luze sakonik egiteko asmorik, informazio larriena ematea baizik. Xoila eta gaingiroki azalduko dugu *Réveilen* sortzea, programa eta jokabidea, zertako egina zen parte euskaraz, zein gertaera eta nola kontatu zituen bere ibilbidean, eta bereziki, zein eta nolakoak diren euskarazko idazlanak –generoak, gaiak eta testuingurua–, euskara eta idazleak.

2. RÉVEILEN SORTZEA, PROGRAMA ETA JOKABIDEA

Réveil da euskaldunen lehen astekari politiko elebiduna. Hura sortu arte Donibane Lohitzuneko *Le Vrai Basque* kazeta xuri erregetiarrak baizik ez zuen euskarazko artikuluren bat edo beste argitaratzen noizean behin, barne aldeko orrialdeetan; *Réveil* agertu ondoan, ordea, 1887ko bozak hurbiltzearekin, kazeta xuriak euskara lehen orrialdera ekarri zuen propaganda egiteko.

Réveil sortzeko erabakia prefeturak, Berdoly buruzagiak (Bordele 1844–Uharte-Amikuze 1905) eta Pirineo Apaletako alderdi errepublikanoak elkarrekin ados hartu bide zuten. Martial-Henry Berdoly abokatua eta Mauleko suprefet ohia zen, franko aberatsa, bere Uharteko jauregian bizi zena, Donapaleuko kantonamenduan. 1885ko diputatu bozetan gorriek izigarriko mustupilakoa hartu zuten departamendu osoan eta Euskal Herrian diputatu guziak xuriak jalgi. Berdoly, Mauleko arrondizamendu edo boz-eskualdean Harispe bonapartetarrak garaitua izan ondoan, 1886an, Donapaleuko kantonadako kontseilari jeneral kargura aurkeztu zen Diriart xuriaren kontra, Daguonet hiltzean. Hortakotz, Berdolyri laguntzeko, sortu zuten *Réveil*.

1886ko uztailaren 11n, igandez, agertu zen beraz *Le Réveil Basque*. Azpiizenburua zuen: Organe des Intérêts de l'Arrondissement de Mauléon. Goiburua: Dieu, Famille, Propriété–Jainkoa, Familia, Hontasuna. Zortzitik zortzira, igandez, jalgi zen uztailaren 18, 25, bai eta 29an, ostegunez, eta abuztuaren 1 eta 8an. Lau orrialde zituen. Neurriak: 30 x 42 zm. Pauen ateratzen

zen, Garet inprimategian, Cordelier karrikan, 11; gero Place des Écoles (1887) eta ondotik Henry IV karrikan (1887-1894). Inprimategi hori *Indépendant* kazeta gorriarena zen, E. Garet baitzen kazeta horren zuzendaria. Parte frantsesez eta parte euskaraz idatzirik argitaratu zen.

Réveilen propaganda, Diriarten kontra, zinez bortitza eta demagogikoa izan zen, xuriena bezala, baina Berdolyk irabazi zuen abuztuaren 1eko bozetan. Donapaleuko kantonamendua, ordura arte xuri egona, gorrien eskuetartatu zen. Artetik errateko, Donapaleu hirian aspaldian nagusi ziren errepublikanoak, baina ez inguruko herrixkeetan eta oro har kantonadan; hori bera gertatzen zen ere Donibane Garazin edo Maulen.

Berdoly kontseilari jeneral pasatu ondoan, *Réveilek* geldialdi bat izan zuen baina ez zegoen lo, eta Berdoly, berriz, bere tenorearen beha, egunen batez diputatu izateko ustetan duda gabe. Destandean diputatu xuri hilaren lekua betetzeko departamendu osoan berriz hautesleak bozetara deituak izan zirelarik 1887ko otsailaren 27rako (gizonkiak baizik ez, erran gabe doa), *Réveil* berriro agertu zen, oraingoan ofizialki, 1886ko azaroaren 14an. Lehen agerraldi ofizial horretan kazetak Mauleko arrondizamenduko interesen aipamena kendu zuen, Euskal Herrira hedatzeko asmoz (Baionako II. arrondizamendura bederen), baita goiburua ere (Jainkoa-Familia-Hontasuna). Berdolyk bere burua aurkeztu ere zuen diputatugai izateko, eta haren hautagaitza sustatu zuten Baionako komite erradikal batek eta Donibane Lohitzuneko Liga Errepublikanoak, Guilbeau Donibane Lohitzuneko auzapeza buru zuenak. Baina alderdiak Vignancour oportunistak edo moderatu bearnesa hobetsi eta Berdoly erretiratu behar izan zen, eta hautagai ofizialarentzat lan egin zuen Mauleko arrondizamenduan herriz herriz Vignancour ezagutaraziz. Otsailaren 27ko bozetan hautagai gorriak gaitzeko zafraldia eman zion xuriari, Joantho erregetiar *Mémorial des Pyrénées*en idazle nagusiari, 12.000 edo gutienez 6.000 bozeko aldea atereaz. Euskal Herrian berean ere bai. “Errepublikaren errebantxa” deitu zuten errepublikanoek.

Beraz kazeten botere eta indarrak jabetuak bide ziren Euskal Herriko errepublikanoak 1885ko porrotaren ondoren. Etsaiek apaiztiarren kazeten propagandari esker irabazi zutela zioten, laborariak erregetiar eta apaiztiarren erranei sineskor zirelako (Martin, “Ene eskualdun lagunak”, RB 14, 1887-II-13). 1887ko otsaileko bozetako kanpainan errepublikanoak bat eginik agertu ziren eta, gainera, Euskal Herrikoek euskaldunen sentimenduei deika, euskara erabiliz eta Biba Eskual-Herria oihukatuz. Adibidez, J. D. J. Salaberri Mauleko notario eta kontseilari jenerala, 1870an bere kantutegi ospetsua argitara zuena (Sallaberry, “Mauleko kantounadako botz-emailer”, RB 17, 1887-II-27).

Beraz gorriek Euskal Herria Errepublikaratuko zela konfiantza erakutsi zuten eta bitoriei esker *Réveil* hazi zen. 1887ko urtarrilean, 600 harpidedunek

hartzen dutela dio kazetak (“Réveil Basque errezebitzen eta irakurtzen duten-er”, RB 8, 1887-I-2); 1887-II-27ko garaitiaren ondoren, idazle eta kolaboratzaile franko dituela, bai frantsesez bai euskaraz, graziaz idazten dakitenak (RB 21, 1887-III-27). *Réveilek* Joanthoren *Mémorialari* ostikoa eman eta Donibane Lohitzuneko *Le Vrai Basque* eta *Le Pays Basque* ehortzi bide zituen. *Réveilen* lezioea ikasita, Euskal Herriko kontserbadoreen buruzagi jarri zen L. Etxeberri bonapartetarrek *Eskualduna*–*Le Basque* hamabostekaria sortu zuen, *Réveili* buru egiteko asmoz, 1887ko martxoaren 15ean, aurki *Eskualduna* astekaria bilakatuko zena.

Réveilen sortzeak esplikatzen du nork eta zertako egina zen. Paueko prefeturatik sustatua eta lagundua izan zen, Berdolyri eta Euskal Herriko hautagai errepublikanoei laguntzeko; “prefeturaren kazeta” deitzen zuten xuriek. Gabriel Davenet (Coderville, Seine Inférieur –Paue 1893), Pauera 1884an etorria eta prefeturako lehen kontseilari kargua hartu zuena jotzen dute xuriek kazetaren asmatzaile eta eragile nagusitzat. Berdolyren adiskidea zen eta haren Uharteko jauregian egonaldiak egiten zituen (RB 1886-VII-25). Funtzionario nekagaitza zen, eri zelarik ere urtetan, eta Berdoly diputatu ikusi baino bi hilabete lehenago hil zen (“Nécrologie. M Davenet”, RB 29, 1893-VI-18, 1.orr., 1. zer.). *Eskualdunak* gorrotatua zen, xurien kontra jotzeko administrazioaz eta epaitegiez baliatzen zela egotzi zioten, bai eta bozak koakzio bidez edo faboreak hitzemanen bilarazten zituela Berdolyrentzat (“M. Davenet”, E 318, 1893-VI-30).

Baina kazetaren kudeatzailea, kazeta-egile nagusia eta legezko arduraduna Candau zuberotarra zen. Hark dioenez, 1870ko gerran mobilisatuen kapitain ohia izan zen eta euskaldun soldaduei armak erabiltzen euskaraz irakasten zien, ez baitzekiten frantsesik (RB 3, 1892-XII-18; 26, 1889-V-19). Pauen bizi zen baina Barkoxe bere herrian eta Zuberoan ere ibiltzen zen Berdolyren laguntzaile, politika lanetan.

Lehen agerraldiko aurkezpen ofizialean (“Gure irakurzailer”, RB 1, 1886-XI-14) *Réveilek* bere programa agertzen du. Laburki: Euskal Herri osoan, herri guzietan harpidedunak (izanen) dituela. Euskal Herri osoko beharrak aipatuko dituela: herri bakoitzeko berriak eta aferak kontatuko, bai eta informazio eta aholkuak emanen bakoitzaren interes, eskubide eta eginbideak jakinarazteko. Errepublikaren sostengatzaile fermua izanen dela eta Gobernamentuari ezagutaraziko dizkiola Mauleko arrondizamenduko eta Euskal Herri guziko beharrak. Baina alderdiari itsutuki atxiki gabe, aitzitik Errepublikaren egonkortasuna, ordena eta bakea nahi dutenei dei egiten die lagundu dezaten: “oraiko legek salbatu behar gaituztela desordre, erreboluzione eta gerra zibiletik”. Azkenik errepublikanoen batasuna aldarrikatzen du Biba euskaldunak! eta Biba Frantzia! oihukatuz.

Gure irakurzaileri

“*Réveil Basque* ezagutua da yadanik zuetarik hanitzez. Agorrilaren leheneko azken bosketan, uruski bataillatu izan gare, eta orduan erraiten ginduen:

“*Réveil Basque* ez da geldituko agertzetik boska ondoan. Kontrarat, bere izenak erraiten duen bezala, deithua da Eskual herriko intresez okupatzerat, eta hortaracotz khondatzen dugu gure adichkide ezagun eta estranyeren gainean aisago egiteko abiatzen dugun obra, erreusitzeko esperantzan.”

Gure hitza atchikitzen dugu.

Réveil Basque fondatua da finki. Mila esker koraye emaila guzieri eta beren laguntza ofreitu guzieri.

Esperantza ginduen baino hobekiago lagunduak gare.

Alderdi guzietarik iskribatzen gaituzte: “zoaste aitzina, zuekin gare”, eta alderdi guzietarik adichkidek igortzen gaituzte abonamenduak. Prezioa bakarka pagatzen ahal ez dutenak yuntatzen dire elgarren ganat jurnal hori errezebitzea gatic, eta segurtatzen ahal dugu orai *Réveil Basque* errezebitua izanen dela eskual herri guzietan.

Orai artio hanitzek uste izan dute eskualdunak ez duela maite libertatea ez eta ere yakitatean aitzina egitea; bainan horra froga, ageri da orai zonbat trunpatzen ziren Eskualdunaren ignorantzaren gainean, zeren ez baitzuten konprenitzen haren lengua-ya eta bizitzeko manerak eta ez baitzakiten harekin solas egiten.

Réveil basque deithua da destruitzerat errankisun eta ustekeria enuchent frango, bai eta asko gauza gaiski konprenituak orai artio. Egina izanen da pharte bat frantsez, beste pharte bat eskuaraz; entseatuko da mintzatzerat guziek konprenitzeko gizan, eta errezebituko ditu plazerekin eta inprimaraziko ditu yustoki eta lejitimoki eginak izaiten ahal zaizkon galde edo erreklamazione guziak.

Herrietako afera inportantak izanen dire chuchen aiphatuak eta jurnal horrek emanen ditu gutarik bakotchak yakin behar dituen abisu guziak bere intresen zaintzeko, bere dretchuez baliatzeco eta bere obligazionen bethetzeko.

Bakezko eta unionezko politika pratikatzen duelarik eta fermoki sinhesten oraiko legeak salbatu behar gaituztela desordre, erreboluzione eta gerla zibiletik, *Réveil Basque*, zoina fondatua baita Murde BERDOLY, contseilu yeneraleko menbroaren proteksione handiaren azpian, jurnal hori izanen da Errepublikaren sustengatzaile fermo- eta Gobernamentuari ezagutaraziko dituen Mauleko arrondizamenduko eta Eskual herri guziko beharrak.

Ez gare gure alderdiari atchikiko itsutuki; ez gare bestetarik apart bizi nahi; laguntza galdegiten dugu borondate onezko gizon guzieri, desordriak eta menturazko aferak hastio dituzteneri, eta bakian bizi eta lanian ari nahi duteneri, ordre oneko eta liber-ateko gobernamentu baten azpian.

Orai artio gure ganik urrun zirenak hurbil ditezela beraz gure ganat! Konpreni dezatela oraiko legeak hobeago egin nahi dituztenak direla egiasko contserbaturrak

edo *churiak* eta ez lege hoienu destruiiaileak. Eta aldiz tronpatuak direla diotenez (sic; diotenuk) oraino lehenagoko denborak itzuliko direla, erran nahi baita errege edo enperadore bat izanenu duguia.

Eta orai, akabatuko dugu, erraiten duguia gure adichkideri: “Unionea, bai unionea eta bethi unionea!”. Horra *Réveil basque* jurnalaren phentsazeko manera, eta oraiko orenean errepublikano guzienu zoinen obligazionea baita phentsamendu bat izaitea: “Frantziaren ona”.

Maitha dezagun Frantzia; zerbitza dezagun pasionerekin, ari gaiten lanian haren fortunaren eta handitasunaren fagoretan; yunta giten guziak banderaren inguruan, hirur koloretako bandera, eta oihu egin dezagun elgarrekin, adichkide maiteak:

Biba Frantzia! Biba Eskualdunak!

(Jurnal-egileak, “Gure irakurzaileri”, RB 1, 1886-XI-14, 1. or.. Ondoan frantsesezko bertsioa (“A nos lecteurs”).

* * *

Alderdi errepublikanoari ez zela hertsiki atxikiko adierazi zuen arren, Paueko prefeturaren kontrolpekoa edo bederen harekin lotura estua izanik, Estatuaren legeak eta kargudun nagusiak errespetarazi nahi zituen, eta halaber espreski –Gambettaren izena aipatuz– errepublikar alderdia garbitu eta batu. Horregatik salatzen zituen eta salatzeria deitzen, bereziki boz aitzinean, gorrien alde boza ematen ez zuten administrazioko funtzionario xumeak, enplegu edo negozio publikoren bat “Errepublikaeri esker” erdietsi zutenak. Horregatik ere, errepublikarren arteko batasuna problematikoa izan baitzen askotan, polemikan ari izan zen *Républicaine Bayonnais* kazeta errepublikar moderatuarekin (1890tik aitzina, artean radikala izan baitzen). *Réveilen* jokaeria bera erakutsiko du haren ondoko *Eskual-Herriak*.

Beraz bere burua “egiazko errepublikano”tzat zuen kazetak maiz eta goraki aipatzen ditu Ferry, Gambetta, Floquet, Constans, azken hau Berdolyren laguna. Bethi Gobernamentuaren aldekoa izan zen, batzuetan moderatua eta beste batzuetan erradikala. “Errepublikaeren bandera Euskal Herrian” bere buruari deitzen zionak kideko eta gogaide zituen Paueko *Indépendant* (haren inprentan jalgitzeaz gain, informazio iturri zuen, hango kazetalanak publikatuz) eta Baionako *Avenir* gorri-gorria.

Bozetan kazetaren hautagai zen Berdolyren diskurtsoak moderazioa azpimarratzen zuen. 1893koetan, bere burua eta pentsatzeko manera agertzean, dio: errepublikano fermua, zaharra dela (ez *ralliés* heldu berri horietarikoa) eta moderazioaren aldekoa; erlijioari buruzko lege guztien eta kontzientziako libertatearen aldekoa; lanaren libertate eta jabetza pribatuaren aldekoa eta sozialismo iraultzailearen kontrakoa; lurraren gaineko zergak kentzea galde

eginen duela, baita laborariari laguntzea eta haren gaineko kargak hobeki banatzea; eta, batez ere, hura, Berdoly, gobernamenduaren gizona dela; alferrekoa dela xuriei boza ematea, hots (Berdoly, “Mauleco arrondizamenduco Electur orori”, RB 37, 1893-VIII-13).

Réveil igande oroz jalgi izan zen 1894-XII-30ean behin-behineko etenaldia iragarri baina betiko itzali zen arte. Sortzean bezala bere ibilbidean kazetaren iraupen eta hedapena, bozetako garaitiari baino gehiago administrazioaren sustapenari zor dio. Urtean 6 sosen prezioan saltzen zen abonatuentzat. Hasieran, 1887ko urtarrilean, 600 harpidedunek hartzen bazuten, erran dugunez, abonatu ez ziren irakurleak bertzalde, 1891eko azaroan 1.000 aletik gora jalgitzen dituela eta Maule eta Baionako bi arrondizamenduetako herri guzietan sartua dela jakinarazten du (“Avis”, RB 1891-XI-8). *Eskualdunak* ez bide zuen irakurle askoz gehiago 1891ean, nahiz haren nagusia diputatua zen: 1300 irakurle, Lafitteren arabera (1971:26).

3. EUSKALDUNEN IRATZARRARAZLE ETA ARGITZAILE

Beraz prefeturako gain hartatik sortua zen *Réveil*, errepublikanoen Errepublikaren ideologia eta politika hedatzeko eta errepublikanoen hautagaiak sustatzeko. Izatez, bere nagusiaren, Berdolyren kazeta izan zen beti. Hierarkikoa sortzez, Frantziako nagusien eta Berdolyren irudi hierarkiko eta paternalista erakutsiko du funtzionario edo enplegu publikodun eta hautesle errepublikanoen alderako (halaber gero *Eskual-Herriak*). Hots, Gobernamendua da nagusia, nagusi ona (beraz hiritarrak haren mutil ona izan behar du). Halaber Berdoly: Gobernamenduaren gizona, Frantziako nagusiek onetsia, haien mutil ona, boteretsua, aberatsa, eskuzabala, jende xehea eta langilea –bereziki laboraria– ororen gainetik maite dituen, erlijioa errespetatzen duena, argitzailea, ongiegilea edo *faboreen* erdieslea, are euskalduna bere ohi-turetan, hots, Aita bat euskaldunentzat.

Diogunaren lekuko, hona *Réveilek* 1887an argitaratu “Dozena bat bertso berri alagrantziaz kantatzeko” hasten diren bertsoetako zenbait estrofa (RB 44, 1887-IX-4). Ortografia batuan ezarri dugu, testuan erdal grafiak erabiltzen baitira alde bat.

2. Sujeta nur eta zer den dut deklaratu
Haren izena nulegi da ez aipaturik izateko
Kartiel huntan gunüke jinkua erremestiateko
Aita bat eman deikulakoz ororen argitzeko.

3. Aita hun haren izenaren hasten niz déklaratzen
Uharteko Jaürégian du jaun harek égoitza egiten
Hanitx penadun dizu harek etxen errezebitzen
Eta ororen konsolatzera duzu lehiatzen.
4. Musde Berdoly duzu jaun haren izena
Frantzia bazter batetik bestila duzu ezagutia
Haren poteria duzu parerik gabia
Eta borontatia aldiz, hori erran gabia.
5. Jaun haren kalitatiak pare gabiak dira
Nahiz eta dutien huntarzunak gaintika
Fabore galtazalia izan dadin aberats edo pobria
Bi besuak zabalik prest duzu ororen konsolatzera.

Bertso hauetan ageri diren hautesle eta hautetsien arteko harremanak (bozak faboreen truk) denbora haietako demokraziari buruzko ikuspegi bat erakusten du, egun ere munduko zenbait Estatutan diraukeena. Kazeta eta haren sortzailea argitzailatzat hartuak dira.

7. Uskal herrietan dikuzu jaun harek eman argia
Guri orori erakutsiz salbamentuko bidia
Bai eta ere érakutsiz maíta erazten Errepublika
Zoin beita esklabajetik gure ororen librazalia.
9. Gure felizitazioniak *Reveil Basque* kasetari
Eta partikularzki haren konposale orori
Harek érakusten deizu lehia handi batéki
Libertatia diela nahi beti guri etxeki.
10. Hartu dugu beraz Errepublikako bandera
Bai eta ere etxekiren duguno bizia
Uskaldunak iratzarri girela emanen dugu proba
Berriz jiten datekienian botzen emaiteko turra.

Izan ere, *Réveil* izenak 'iratzartze' eta 'iratzarrarazle' esan nahi du eta, hain zuzen, kazetak dio euskaldunen eta bereziki euskaldun laborarien iratzarrarazle eta argitzaile izan nahi zuela; bestalde, errepublikanoek biziki maite zuten hitz hori kazeten izentzat ezartzea. Ezen, euskaldunak gibelatuago omen, beste toki askotako frantsesen eretzean. Euskaldunen aitzinamenduaren izenean mintzo zen *Réveil*, errepublikar diskurso mesianikoa erabiliz.

“Errepublika fincatua da azcarki eta oraino hobeki fincatua izanen da Escual herrian ignorantac egia yakitearekin *Réveil Basque* gasetaren medioz.”
 (“Jinkoa eskoletan”, RB 25, 1887-IV-24; 1. or.).

Euskaldunen iratzartzeaz mintzo delarik, erregetiar eta bonapartetar pentsamoldearen eragina haien baitan handia zela aitortzeaz gainera, *Réveilek* bertze gauza bat ere erran nahi du: euskaldunak gibelatuégi zeudela frantses-

tasunean edo frantses sentitzean eta batez ere frantses hizkuntzaren ezagutzan. Hortakotz 1893 hondarrean bozkarioz jakinarazten du Mauleko arrondizamenduko haurren eskoletan 1880tik 1893ra frantsesaren ezagutza zinez aitzinatu dela (“Le français au pays basque”, RB 3, 1893-XII-17). Ez da arranguratzen, noski, ea euskara galduz doan familian edo gizartean. Soldadogora joaterakoan euskaldun gazteak frantsesa jakinda joan zitezen nahi zuen *Réveilek*, eta, Ameriketara joatekotan, ez behintzat zerbitzu militarra egin gabe. Beraz frantses on izateko euskaldunek eskolan frantsesa ikasi behar zutela predikatzen zuen, eta hortakotz haurrek eskolara joan behar zutela (laborantza lanetan laguntzeko haur asko eskolara gutxitan joaten baitziren).

Ideologia aldetik *Réveil* euskararen kontrakoa ez baina frantsesaren eta euskaldunak frantsestearen aldekoa baldin bazen, zertako zen erdia edo parte handia euskaraz argitaratu? Duda gabe, Euskal Herriko laborari ia guziak, funtzionario xehe gehienak (guarda, bidegile, tabako saltzaile...) eta errienterrientsa ez gutxi (eta haiek ziren Errepublikaren lehen lerroko soldaduak kanpainetan), hautesle eta are “militante” errepublikano (eta kontserbadore) gehienak euskal hiztunak zirelako, eta asko, frantsesik ez zekitenak. Berdolyk ez zekien euskaraz baina euskara behar zuen; horretarako zeukan Candau. Berdoly Barkoxen zelarik, herriko kontseilukoekin bildurik, ezin zuten elkar aditu, kontseilukoek ez baitzekiten frantsesik ezta Berdolyk euskararik (Irigoin 1888).

Bereziki euskara darabil *Réveilek* laborariei mintzatzeko, haiei Errepublika ezagutaraz eta maitarazteko, baita Frantzia, frantses hizkuntza, Frantziaren historia, armada, koloniak...eta Frantziako eta Frantziaren haur sentiarazteko. Xurien propagandak laborari munduan eragin handia zuela zioen (uzta txarrak, zergak...), ideien munduan ere bai, laborariak gibelatuago (eskola gutxi, frantses gutxi) eta sineskorrago zirela (beraz apezen eta xurien mendeango). Bertzalde, kazetak erakutsi nahi zien Errepublika azkar zela, etsaiek ez zutela Errepublika kordokaraziko.

Errepublikanoak (kontserbadoreak bezala) euskalduntasun sentimenduaz (eta ideologiaz ere: euskaldunek libro izan nahi dutela etab.) baliatzen ziren bozetan eta Berdolyri euskaldun itxura ematen saiatzen, orobat Floqueti (“Eskualdun eguiazco bat”, RB 25, 1892-V-15). Candauk Joanthori euskaraz erantzuten zion (RB 1887; 2, 1892-XII-11), erregetiarrak Aruen lur-sailak bazituen ere hura (Candau) euskaldunago zela erakutsi nahiz. Nolanahi ere, *Réveil basque* (1886) hasi zen euskara erabiltzen, ez *Eskualduna* (1887), nahiz gero xuriak euskarari toki nagusia eman, euskara erlijioaren babes eta hesitzat hartu eta erabiliz. *Réveilek*, ordea, gero eta euskara gutiago erabili zuen azken aldera, Errepublika inoiz baino indartsuago zelarik.

4. GARAICO GERTAERAK RÉVEILEN BEGIPEAN

Réveil Errepublikaren eta haren legeen defentsari, errepublikanoen alderdiari eta bereziki Berdolyren kanpainei lotua egon zen beti. Erregetiar, bonapartetiar eta boulangertiarrek zituen etsai eta bereziki L. Etxeberri eta *Eskualduna*. Kazeta alderdikaria baitzen, aldian aldiko gertaerak bere ikusmolde eta interesen arabera hautatzen eta kontatzen ditu. Hona beraz, urteka, gertaera eta mintzagai nagusietariko batzuk:

1888: herrietako kontseiluak hautatzeko kanpaina (gorriak nagusitu ziren, salbu Donibane Lohitzunen). Floquet eta haren ministerio erradikalaren alde eta Boulangerren kontra. Jakina denez, Floquet ministro nagusia, framazon buruzagia eta Eliza eta Estatuaren arteko bereizkundearen aldekoa, Donibane Garazin sortua zen eta ahaide hurbilak zituen Euskal Herrian; L. Etxeberri haren kusia zen. Floquetek Boulangerrekin izaniko duela kontatu zuen euskaraz *Réveilek* (RB 36, 1888-VII-22). 1888-1890 bitartean *Réveil* Boulangerren kontra ari izan bazen, zeharbidez, L. Etxeberriren kontra ere ari izan zen, buruzagi xuria Konstituzioa berriz aldatzearen eta presidentzialismoaren aldekoa baitzen eta parlamentarismoaren kontrakoa.

1889: soldadutza egin gabe erbesteratuentzako amnistiaz, 1889ko mendeurrena kari, artikulua saila argitaratu zuen, euskaldun anitz baitzen kanpoan egoera hartan. Artikulu ugari ere, Iraultzaren ospakizunak kari, Parisen ospatu Espozizioaz. Zenbait, soldadugoko lege berriaz, hiru urtetara murriztu zuena, apaiz eta apaizgaiak ere urte bateko soldadugoa egitera behartuz. Ongi etorri Jaufret Baionako apezpiku berriari, Presidenteak onetsiari, eta laudorio haren liberal izpirituari, Intxauspe bikario jeneralaren aginteari mugak ezarriko zizkiolakoan (RB 44, 1889-IX-22). Berdoly diputatugaiaren alde bermatu zen da kazeta, L. Etxeberriren kontra aurkezten baitzen Mauleko arrondizamenduan. Berdolyk galdu zuelarik (5891 boz vs 6906), eta halaber Morroxo Harriagek Labat bonapartetiarraren aurka, “Eskual Herriaren ignorantzia handia” deitoratu zuen *Réveilek*. Eta apezek politikan esku hartu zutela-eta, herrietan salaketak egitera deitu.

Aphez hanitzec erran dute kontzientziako afera zela M. Etcheverryri boza ematea eta behar zela hautatu edo Yainkoa edo deprua. (...). Aphezeri du bakharric zor M. Etcheverryc duen majoritatea, zeren horiec duten Eskual-herrian nausitazun bat handia. Boz ematea ez da libro izan, bakhotchac nahi duen bezala.(...) (“Mauleko bozkatzearen haustea, RB 11, 1890-II-2)

Ondorioz Diputatuen Ganbarak bozak hautsi eta Etxeberri inbalidatu zueneko kontuak eta hizka-mizkak agertu ziren kazetan, bai eta boz egunetako eta ondoko kalapitak: Etxeberri eta Mettas suprefetaren arteko afera,

bozkatzetean Urepeleko errientak izaniko jokabideaz; Agorrekaeren afera, luzaz iraun zuena (1889-1892) eta Euskal Herriko 20 apaizen leku-aldatze bortxazkoa, horien artean Diharasarriena.

1890: berriz ere Etxeberriren garaitia irentsi behar izan zuen *Réveilek* (RB 15, 1890-III-2). Diputatuen Ganbaran Etxeberriren hitzaldiari Thévenet eta Fallièresek emaniko erantzuna. Lavigérie kardinal baionesaren harrera Itsas Armadari Algerren (RB 1, 1890-XI-23); kardinalaren letra (RB 3, 1890-XII-7). Nola, hura bezala, Errepublikari jartzeaz mintzo zen Annecyko apezpikua (RB 5, 1890-XII-21).

1891: zenatur bozetan Haulonen alde errepublikanoek eginiko lana, kontseiluetan senatari izendatzaileak hauta eta Pauera igorritz. Diharasarri eta Pujol aferan monseinoarearen ponpak gogotik maiseatu zituen *Réveilek*. Presidenteak Paue eta Baionara eginiko bidaia eta hari makila eskaintzea, L. Etxeberriren jokabidea gaitzetsiz –joan ez zelako–, eta, azkenik, Frantzia eta Errusiaren arteko akordioa izan ziren urteko beste solasgai nagusiak.

1892: Eliza katolikoak eta apezek, Lavigerieren eredura, Errepublika onetsi beharraz. Herrietako kontseiluko bozak (Kontseilu jeneralekoetan gorriak nagusitu; herriko kontseiluetakoetan, xuriak).

1893: Panamako auziaz artikulua ugari. Diputatu bozetan berriz Berdoly Etxeberriren kontra eta, oraingoan bai, *Réveilek* Berdolyren garaitia ospatu zuen (6670 boz vs 6062), baita Morroxo Harriagerena Diharasarri apez erregetiarrari nagusiturik Baiona II boz-eskualdean (5351 vs 3779). Hiru diputatuak gorriak jalgirik, “Eskual Herria atzarri da” kantatu zuen Otxaldek *Réveil*-en.

1894: Carnoten hiltzea, anarkisten kontrako legeak eta Dreyfusen auziaren hastea, gorri eta xurien artean polarizazio handiagoa sortaraziko zuena.

Réveil itzaliz geroztik, 1898an berriz jaldi zen diputatu Berdoly. Urte horretan *Eskual-Herria* sortu zen, Lewy d’Abartiaguek zuzendua. Waldeck-Rousseauaren eta Combesen gobernu erradikalaren denboran haien alde eta Mélinen joerakoen aurka agertuko zen kazeta hori, hots, Euskal Herriko diputatu errepublikano moderatuen aurka (Légrand, Morroxo Harriage, Pradet-Ballade, azken hau Mauleko arrondizamenduan jalgia Berdolyren ondoko), haiek gaitzetsiz eta etengabe kritikatu, gero eta erradikalago eta antiklerikalago. Orduko Berdoly senadore izendatua izan zen (1900) eta fraide-serorak irakaskuntzatik kanporatzearen alde eman zuen beti boza (Hiriart-Urruti 1971:141-146).

5. EUSKARAZKO ARTIKULUAK ETA BERRIAK

Beti frantsesezko artikuluak euskarazkoak baino gehiago izan ziren eta sail garrantzitsuetan kokatuak: Nouvelles Politiques, Bulletin Politique, Nouvelles Militaires, Bulletin Financier, Révue Hebdomadaire, Le Département, Le Pays Basque. Beraz Diputatuen Ganbarako eztabaidak eta Kontseilu Jeneraleko arazoak eta erabakiak irakur daitezke, *Eskualdunan* ez bezala. Bereziki Le Pays Basque sailak herrietako berri ugari biltzen ditu, batez ere Mauleko arrondizamenduko hirietakoak: hor ageri dira herrietako gertaera orotarikoak, errepublikanoen bilkura, sozietate eta hilberriak, baita tobera, kabalkada, maskarada, pastoral eta euskal besten berriak, Ameriketara joandakoenak eta azken urteetan are hegoaldekoak.

Iritzi artikuluak ere, euskaraz anitz agertarazi zituen arren, gehiago frantsesez. Gehienak, sinatu gabe edo ezizenez (X, XY, Z, H...). Candeauek bereak sinatzen zituen, bereziki polemikazkoak edo espreski laido egitekoak; *Eskualdunak*, ordea, ez zuen arduradunaren izenik ezartzen eta hori egozten zion beti Candauk. Jean Tommeryk, erredakziokoak, politikaz idazten zuen. Noizbehinka Long-Savigny eta J. Elie Pécaut doktorearen artikuluak publikatzen zituen kazetak: lehena *Aveniren* idazle nagusia zen 1890-VIItik aitzina; Eli-Pécaut framazonak, *Aveniren* ez ezik, *Eskual-Herria* eta *Frontière du Sud-Ouesten* idazten zuen. Gutxiagotan beste batzuenak (Emmanuel Arène, Louis Braud). Frantses politikarien artikuluak ere argitaratu zituen *Réveilek*: Jules Simon, J. Ferry, L. Barthou, Poincaré, Constans, Develle etab.

Olerkiak ugari eta istorio laburrak ere franko publikatu zituen frantsesez, gehienak egilearen izena gordez; errepublikano joerakoak, noski (J.B. Larrieu, E. de B. etab.). Bearnesez ere poesia bat, saritua, A. Peyré-rena (“Concous Navarrot”, RB 48, 1887-X-2). Prosazkoen artean, Crac delako kolaboratzailearen istorio edo nobela labur euskal girokoak dira ugariena, *nouvelle basque* deitzen baitzituen; egilea Sauveur Harruguet uxer garaztarra bide zen, framazon aipatua (1871-1952).

Euskarazko kazetalarian hiru mota nagusitan multzokatuko ditugu: iritzi artikuluak, berriak eta jostagarriak. Iritzi artikuluen artean badira polemika, atxikimendu, propaganda eta irakaspenekoak. Polemika artikuluetan eskolarena da arlo nagusietarik bat. 1887an artikulua sail bat agertarazi zuen xuri-akusazioen kontra (Errepublika erlijioari jazartzen ari zaiola eta errienterrientsek ez dutela katiximarik ez otoitzik irakasten, ez Jainkoaren izenik eskolan aipatzen). Kazetak ihardesten die Jainkoa bai aipatzen dela eta errien-

ten eginbidea ez dela katixima irakastea, morala irakastea baizik². Polemika artikuluok Ferry eta Bert-en eskola legeen (1880-1886) testuinguruan koka-tzen dira. Azkenak (1886), Estatuaren eskoletan apaiz-fraide-seroren orde-z laikoak ezartzen zituen irakasle, eta katixima eskolatik kentzen.

Errient-errientsei eta apaiz-apezpikuei buruzko artikuluak ugari dira. Horietako batzuk, bozkatzeeetan batzuen eta besteen eginbidea zein den ohar-tarazteko: haiena, gorrien alde boza emanaraztea, eta, apaizena, politikan ez sartzea. Frantziako apezpiku zenbaiten gutun eta aipua maiz ageri dira, Errepublikak haiekin dituen harreman onak erakutsi nahiz euskal apaizei. Euskal Herria katolikoa izanik, erlijioa zatekeen kazeta gorriaren “puntu ahu-lena”. *Eskualdunak Réveileko* artikuluen egileak juduak edo protestantak edo giristino arnegatu zenbait direla egotzirik, hark erantzuten du:

“Ez gare yudu, ez protestant. (...) Giristino katoliko on gare, gure ustez; (...) familiako membro guziaz ibiltzen gare elizan.” (“Nor gare edo zer gare”, RB 7, 1890-I-5).

Hastapenetan, bozen karietara, elkarrizketa eta istorio formako politika idazkiak ere argitara zituen *Réveilek*, etsaien kontrako alusioz beteak, fran-tsesez eta euskaraz (itzulpenak, hauek). *Réveil* eta *Eskualdunaren* arteko pole-mikaren tonua zinez bortitza eta zakarra izan zen (halakoa bide zen beste tokietan ere): piko eta laido, ironia, burla eta sarkasmo, kitzikatzeko, salatze-ko dei...

Polemika eta Errepublikaren politikaren propaganda nahasten dira izen-buru generikoa duten beste artikulua askotan: “Errepublikak bakea nahi du” “Errepublika eta laborariak”, “Errepublika eta zergak”, “Errepublikaren ongi eginak”, etab. Frantziako politikakoak ugariak dira, bai barne- eta kanpo-politikakoak (armada eta soldadugoaz, Tonkin eta Dahomeyko kolonizazio-az); nazioarteko gaietakoak ere ez guti, ez eta Frantziako ekonomiakoak eskas (Frantziaren zorra, buxeta edo diru-kontua, errenta, merkataritza etab.), edo gizarte eta ekonomia arazoei buruzkoak (laborantza eta azienda hazkuntzaren krisia, emigrazioa, soldadogoa). Adibidez, emigrazioaz, bereziki Ameriketako euskaldunen berri eta gutunak, badira hamabost bat, frantsesez baino askoz gutiago, eta hiru bertso-sail, Hiribarrenen *Eskaldunac*-etic (1853) bilduak. Badira ere Gobernamentuko eta Elizako agintari nagusien iritzi artikulua-k, hitzaldiak edo gutunak, adibidez Ferryren, Errepublikako Presidentearen, Rouvier nahiz Mauleko suprefetaren, Lavigerieren eta Langres-eko apezpi-kuarenak. Badira irakurleentzako aholku (“abis”) eta oharrak ere. Propaganda

² Eskolan haurrei morala irakatsi beharraz, Ferryk manatu bezala: “Aita eta amen argi-tzeko. Moralaren erakustea eskoletan edo ongiaren egitea eta gaizkitik urruntzea” (RB 33/35, 1887-VI-19; VII-3).

hutsekoak dira boz egunetako hautagai errepublikanoen deiak haien pentsatzeko manera agertuz eta boz galdez, boz ondoan eskerrak emanez, edo boze-maileei aholkuak, edo etsaien kontrakoak.

Irakaspenezko artikuluetan toki berezia merezi dute laborantzazkoek eta Frantziako historiazkoek. Laborantzazkoak (ogi hazi, ongarri, arno, arbola landatze, kabaleen eritasun kontuez etab.), euskaraz eta frantsesez argitara zituen *Réveilek* Laborarier (1891-1894), Agriculture, Chronique Agricole eta Chronique Forestière sailtan (azken bietan euskaraz ere noizean behin). Esan behar da III. Errepublikak laborariak aitzinarazteko eta argitzeko liburuak eta kazetak argitara zituela eta irakasleak izendatu departamenduetan hitzaldiak emateko. Artikuluon edukia liburu horietatik eta laborantza irakasleen hitzaldietatik bildua dateke. Beste mota bateko artikulua ere badira, hots, politika eta propagandakoak, eta franko: laborariak Errepublikan hobeki bizi direla errege eta enperadoreekin baino adierazteko, edo haiek salbatu izan dutela Errepublika behin baino gehiagotan. Mota bateko eta besteko artikulugileen artean aipagarri da Piarres sinatzen duena.

Frantziako historia kontatzen duten artikulua ere maiz haren (ez)izenpean argitaratuak dira, hiruzpalau aldikadatan, arruntki bozak aitzinean edo ondoan. Errepublikaren ongi eginak eta erregeen eta Napoleondarren gaizki eginak kontatzen dituzte, aldiari aldiko etsaien kontra jotzeko asmoz: lehen artikulua saila, Joantho erregetiarraren kontrako kanpainarekin abiatzen da, 1887-II-27ko bozen aitzin eta ondotik, gutxienez dozena bat artikulurekin. 1888an beste bi artikulua sail agertzen dira: ekain-uztail-abuztu aldean Frantziako iraultza handiko gertakariez; eta azaro-abenduan beste bat, Boulanger-en mugimenduaren kariatara eta *Eskualdunarekin* polemikan, kazeta xuriak begi onez ikusten baitzuen Boulanger, aitzinagoko bi Bonapartee bezala Errepublika erroz gora aurdikitza zaihoalakoan. Adib. “Errege tzarrac eta Erreboluzioneac Frantzian” (RB 51, 1888-XI-4) edo 1870ko gerlaz, Napoleon I.aren estatu-kolpeaz eta 1848ko iraultzaz ari direnak. Eta berriz 1889an, maiatz-ekainean, uztaileko bozak aitzinean. Historiari buruzko artikulua *Eskual-Herrian* segida izanen dute, Frantziaren historia osoa laburturik, eta eskola gutxikoentzat bulgarizazio maila apalean emanez.

Piarresen kontatzen duen bezala, eskolan haurrei Frantziako Historia irakasten zitzaion, asmo jakinez,

(xuriek) badakite guc escolan ikhasiko dugula haurrer Frantziako istorioa, erregek eta enperadorek egin tuzten gaizkiak yende chehiari (...)
(Piarres, “Yinkoa eskoletan”, RB 48, 1887-X-2).

Hori bera egin nahiko zuen *Réveilek* eskolatik kanpo. Laborariei eta irakurleei irakasteko, idazlea mintzaldi edo solas tonuaz baliatzen da; egitura aldetik ere, batzuetan galdera eta erantzunez, katiximan bezala (historiaren

irakaspena katixima politikoa baita), edo, alegietan bezala bukaeran irakas-kizuna azalduz (hots, “lehen eta orai” nor ari den eta zertako laborariaren eta jende xehearen alde eta kontra).

Irakurzaile maitia, orai ikusten duzu zerentzat aphezak eta nobleac atchikiak diren erregeri, agian lehenagoko denborac ethorriko direla horientzat: Karguac, fagoreac, ohoreac eta nausitasun osoa; populu chehiarentzat aldiz, dretcho pagatze, lanac eta esklabotasuna. (“Lehenbiziko errepublikaren proklamatzeari buruilararen 21 ian 1792 an”, RB 39, 1887-VII-31; 1. or., 1. zer.).

Historiako gertaeretatik eguneko politika arazoetara jauzi egitean, Frantziako historia horren funtzioa ageri da: bozemaile laborariak “argitu” boza errepublikanoen alde eman dezaten, Errepublikaren ongiak edo abantailak ezagut ditzaten. Hain zuzen, errepublikar historia ofizialaren arartekoz –Iraultza Handia hartzen duena erreferentzia puntu nagusi–, Frantzia aberriaren eta Errepublikaren alderako atxikimenduak elkartzen ditu errepublikanoak eta hori da *Réveilek* egin nahi duena Euskal Herrian eta euskaraz.

Berriei dagokienez, bi motatakoak dira. Bata euskal herrietakoek, politikarekin zerikusia dutenek osatzen dute; horietan berriak iritziekin batera emanak dira, bereizi gabe. Berri horietako batzuk Le Pays Basque sailean agertu ziren, beste batzuk gutun formaz, herrietako berriketariak edo herritar errepublikano batzuek idatziak eta ezizenez sinatuak. Gutunetarikoa batzuk herritarrei zuzenduak dira (“Ene herritar maitiak” hasiak), gehienak kazetaregileari (“Jaun kazeta-egileari” hasiak). Herri-kronika bereziak dira, alderdikariak, gehienetan gai eta okasio jakinen ingurukoan (uztailaren 14ko besta, herriko bestak, herriko eztabaidak bozak aitzinean); ohointza, istripu eta holako gertaerei buruzkoak ere badira, gero eta gehiago azken aldera, iritzi artikulua gutxitu ahala. Bertsoak ere ez dira eskas, lerroaldeetan barrena, tartekaturik. Orotara, berri eta gutun, 70tik goiti. Hortaz *Réveilek* irakurle euskaldunen parte hartzea bultzatu zuen, euskarazko gutunen bidez. Elkarrekin komunikatzeko bide bat eskaintzen zien kazetak, boz giroak lagundurik; berriemate batzuek elkarren ezagunak dirudite. Bide hori bera erabili zuten beste kazeta batzuek ere (*La Frontière du Sud-Ouestek*, adib. 1907an). *Réveilen* garaian, euskal herrietako berriak frantsesez emateko ohitura handiagoa zegoen; *Eskualduna* ere 1891 arte ez zen ohartu Euskal Herriko berriak euskaraz ematearen garrantziaz (Hiriart-Urruti 2004:367-369).

Beste mota, Nouvelles Politiques-en ereduak Berri Zombait saileko berri laburrek osatzen dute, komentarioak erantsita: hasieran berri larriak nazioartekoak eta Frantziakoak; gero Euskal Herrikoak ere, orotarikoak, istripu eta bitxikeriak barne, bai eta ekonomiakoak edo Ameriketakoak. Hori da euskarazko sailik finkoena (1888-1894) eta berrien nahiz kazetari idazkeraren alde-tik (ortografia modernoa, besteak beste) baliotsuenetarikoa.

6. BERTSO, ISTORIO ETA IRRI SOLASAK

Kazetalan jostagarrien artean badira, alde batetik, kantuak eta bertsoak, eta, bestetik, *feuilleton* gisa agertarazi kontakizunak nahiz istorio eta gertaera labur bitxiak edo ateraldi irrigarriak.

Kantu eta bertso franko argitara zituen *Réveilek* (40 inguru). Horien artean batzuk kantu zahar edo tradiziozkoak; beste batzuk Etxahun, B. Mardo, Elizanburu, Zaldubi eta Larralde medikuaren kantu ospetsuak. J. D. J. Salaberriren liburutik hartuak dira anitz (Salaberri 1870). Badira politikakoak (dozena bat), bai eta zuhurtzia umorez erakusten dutenak ere (“Bi adinen arteko gizona eta bere bi emaztegiak”, egile izengabearenak, RB 28, 1887-V-15).

Politika bertsoen artean batzuk lehenago argitaratuak ziren: 1887-II-27ko bozen ondotik berrargitaratu zen Elizanbururen “Lehen eta orai” (RB 25, 1887-IV-24), egilea bizi zelarik beraz (1879an Donostiako lehen euskal festetan saritua izan ondoan *Euskal-Errian* argitaratua 1885ean). Haren paretsuko “Biba Errepublikak!” behin eta berriz argitara zuen *Réveilek* (RB 19, 1887-III-13, 1891-V-24; geroztik Urkizuk 1991:I, 31-56, huts franko dituen beste iturri batetik). Indar handikoa da eta, ustez, J.D.J. Salaberrirena.

Berdolyren alde eta Etxeberriren kontrako bertso berri mordoxka argitara zuen kazetak, hauteskundeen kariatara, edo ondotik garaitia ospatuz; beste batzuk, *Réveilen* alde eta *Eskualdunaren* kontra. Etxeberriren 1889ko garaiak dozena erdi bat bertso berri sortarazi bazituen Berdoly eta *Réveilen* kontra, beste hainbat Berdolyren 1893ko garaiak, horien artean bi Otxalderenak. Kazetetan etsaiaren kontra bertsoak argitaratzeak indar eta oihartzun handia izan behar zuen eta, zernahi gisaz, aldi hartako politikaren bizitasun eta polarizazioaren lekuko dira. Bertso horietako batzuetan egile izenik ez da ageri; beste batzuetan, izen edo deitura edo patronimiko bat. Beraz ezezagunak dira guretzat, Otxalderen kasuan izan ezik, baina bertsolari haiek bazuten elkarren berri: “Biba Etcheverry! Kuku Berdoly!” bertsoak, Pette Mauleren kantoreari erantzuteko atera dituela dio haien sinatzaile Jouhane Atharratzek eta hala da. Hain zuzen, Pette Mauleren kantore hori, aire berarekin, 1893an berriz argitara zuen *Réveilek*: “Biba Berdoly! Kuku Etcheverry!” (RB 40, 1893-IX-3). Gero, *Eskual-Herriak Réveilen* bide bertsutik jarraitu zuen, bereziki bertsolari eta neurtzilari gorrien kantuak agertaraziz.

J. B. Elizanbururen *Piarres Adame* nobela argitara zuen *Réveilek*, zatika edo epeka (RB 34, 1887-VI-26–1888-III-18); azken urte honetan *Réveil* jalgitzen zen inprimategi beretik atera zen liburu gisa lehen aldiz (Paue: Garet, 1888, ik. Vinson 1891 Addit. et corr. 653-10°; lehenago, Donibane Lohitzuneko *La Nivellen* argitaratua izan zen: F. B. Larzabal 1983:329).

Legenda zenbait ere argitara zituen hastapenetan (1887): batzuk, Cerquandek bildu ipuinetarik (1884-1885), iturria aipatu gabe. Badira istorio “egiazkoak”, “alegiazkoak”, bitxiak eta beste (“Eskualdun buhameac Pauen 1805ean”, 1892).

Gertaera bitxiak eta ateraldiak ugariak dira; maiz frantses kazetetarik hartuak, bardin frantsesezkoekin nahaste, aldizkatuz. Sailen izenak gehienak frantsesezkoak dira: *Faits Divers* (1887), *Drolekeria* (1888-1890; *Droleries*, 1890), *Mots pour Rire* (1888; hortik datorke “irri solasak”, euskarazko azpi-generoa, geroago *Eskualdunan* ere agertuko dena), *Menus Propos* (1892-1893), *Variétés* (1893, 1894).

7. EUSKARA ETA EUSKAL IDAZLEAK

Réveilek hiru euskalkiak erabiltzea erabaki zuen: zuberera, nafarrera eta lapurtera, aldizkatuz (“*Avis*”, RB 3, 1886-XI-28). Izatez, zuberera eta baxenabarrera dira usuenak. Bestelako erabakirik ez du espreski adierazten, baina, hasieran ortografian anarkia badago ere, geroago nolabaiteko batasuna nabari da, ortografia nahikoa modernoa erabiliz: *-k-*, *-c* (*-k* 1894an), *y-*, *tz*, *tx* (*ts*-ren ordez). Salbuespena Candau da, beti frantses ortografiaz idazten baitu.

Candauk frantsesez ez ezik euskaraz ere idazten zuen, bere izenez sinatuta edo laburduraz (C): irakurleei informazioa edo oharrak (1. or.), etsai kazetari erantzunak, agian iritzi artikulua nagusi batzuk lehen orrialdean, eta Zuberoako berriak noizean behin. Frantses joskera eta hitzak ugari zerabiltzan. Ez zuen euskaraz idazteko ezein idatzizko eredurik. Haren euskara gaiztoaz trufatzen zen *Eskualduna*, erran dugunez.

Baina ezin halakorik egotzi beste batzuei, adibidez Piarres sinatzaileari. *Réveileko* kolaboratzaile nagusietarik zatekeen, euskaraz eta frantsesez. Laborantza, politika eta gizarte gaiak eta Frantziako historia dira haren arlo nagusiak. Ongi azaltzen daki, pedagogikoa da; laborariari zuzentzen zaio, hizketa-estiloa erabiliz, irakatsi nahi baitio. Zuzen idazten du haste-hastetik (nahiz nor-nork-nori adizkien ordez nor-nork motakoak darabiltzan), euskara duinean. Ortografia aski modernoa darabil; joskera eta hiztegien ezagun da eredu idatziak hein bat ezagutzen zituela. Garaziko euskaren kutsua du. Zernahi gaiez idazten du, hiztegi eta mintzaira funtzionalean. Hura da euskal idazleetan aipagarriena.

Guillen sinatzen duenak gizarte-gaiez, laborantzaz eta ekonomiaz idazten du, azalpen teknikoak emanez. Haren drolekeriak eta gertaera bitxiak ere atsegingarriak dira eta grazia du kontatzerakoan. Ortografia zaharra darabil eta

nahasia, baina funtzionala da haren hizkera ere. Ordea, Yoanes delakoaren euskara ez da hain landua. Noizbehinkako berri igortzaileen artean aipa daiteke ere J. P. Goitino, *Kaliforniako Eskual-Herriaren* idazle nagusia, bizpahiru artikulua eta Etxeberriren kontrako “Barea eta karakoila” bertsoak igorri baitzituen (RB 1893-XII-3; RB 36, 1894-VIII-5). *Réveilek* Goitinoaren kazetako artikulua eta berri mordoxka argitaratu zituen, batez ere 1893-1894an.

Beraz Candeau bazter utzita, idazleak nor ziren ez dakigu zuzen, ez baitute gehienetan sinatzen, 1889 arte izan ezik, eta izen arruntez gainera, ikusi dugunez. Idazleonek nortasunari buruzko aipamenik ere ez da ageri kazetan. Militante eta propagandista politikoak ziren, euskaldunak eta euskara erabiltzen zutenak. Haiek izan bide ziren *Eskual-Herriak*oen aitzindari, agian idazle berak, lehenago *Réveilen* trebatuak; oro har doi bat hobeki idatziko baitute *Eskual-Herriak*oek.

Ondorio batzuk

Réveil Basque, Euskal Herriko errepublikanoen kazeta, eskuragarri behar genuke interneten, ikerketak nahiz kontsultak egin ahal izateko. Euskal Herriko irakaskuntza edo kultura erakundeak horretaz arranguratu eta lan hori bere gain hartu behar lukete, III. Errepublika garaiko gure historia, hizkuntza eta literatura ezagutzeko tresna baliotsua baita. Hartara, Euskal Herriko gorrien eta xurien berri jakin eta, borrokaldiko berotasuna hoztu ondoan, aldi iragana eta egungoa ere hobeki ezagut ditzakegu.

Euskara aldetik *Eskualdunak*oa aipamen handikoa bada ere, hark baino lehenago argitara zituen *Réveilek* laborantzako artikulua, Frantziako historiakoak, politikako bertso berriak. Bertzalde, berri larriak, bereziki politika mundukoak, laburki ematean euskal kazetaritzaren historian lehena izan daiteke. Horrek guztiak erakusten baitu euskal idazle edo kazetari gorriak edo errepublikanoak ere izan ditugula.

Artikuluaren esandako gauza batzuen erakusgarri, Otxalderen bertso batzuk berrargitaratzen ditugu: “Zuela 100 urthe–Biba Errepublika!”. *Réveilen* agertu ziren lehen aldiz, Berdolyren 1893ko kanpaina garaian, abuztuaren 6ko agerraldian; bozak abuztuaren 20an ziren. Harrezkero ez bide ditu inork inon jaso. Otxaldek 80 urte zituela ondu zituen bertso horiek, errepublikanoekin engaiatua zela erakusten dutenak, nahiz ez zuen uste irabaziko zutela; bestenaz, jakina da 40 urte lehenago L. Napoleon III.aren laudoriozko bertsoengarik saritua izan zela (“Biba Luis Napoleon!”, Urruña, 1852). 1893ko garaitiaren ondoan Otxaldek beste batzuk atera zituen *Réveilen*, “Eskual Herria atzarrri da” izenburupean, F. B. Larzabalek berrargitaratuak (RB 40, 1893-IX-3; Larzabal 1983:336-337).

Errepublikaren aldeko propaganda bertsoak dira hemen berrargitaratzen ditugunak eta errepublikanoen ideiak erakusten dituzte (lege berria vs zaharra), baita Otxalde guarda ondoak Frantziako historia ezagutzen zuela eta agian *Réveileko* historia artikulua ere.

Hamabi bertso dira, lau puntukoak eta 15 silabakoak (8+7); aireari egokituta kantatzekoak, ez letrari. J. B. Elizanbururen “Lehen eta orai” bertsoen oihartzuna entzun daiteke, bietan ageri baita ideia nagusi bera: Iraultzak ekarritako aldakuntza (lehen esklabo, orain jende), laborariaren estatuari aplikaturik:

Hogoi mendez bedere hola munduan / Gizona gizonaren esklabo zuan!”
(J. B. Elizanburu, “Lehen eta orai, 5. estr.)

Errepublika jin aitzinean huna zer zen munduan, / Gizona gizonarentzat
esklabe baitzen orduan, (Otxalde, 2. estr.).

Jakina denez, Otxalde (1814–1897) eliz ofiziorik gabe ehortzi zuten, Oxobik dienez (1950:11). Hona beraz Haritschelhar jaun estimatuari nire oparia eta Otxalderi nire meza.

* * *

ZUELA 100 URTHE –BIBA ERREPUBLIKA!

Belzunce ahairian

Errepublikak egin lan hunez orai nahi naiz mintzatu
Gure abraso eroriak, nula zituen alchatu;
Orduko legue berriak eskuetan baititugu,
Hersatuki conplitzera, entseatu behar dugu.

Errepublika jin aitzinean huna zer zen munduan,
Gizona gizonarentzat esklabe baitzen orduan;
Autor batzuek hartu zuten gauza hau beren buruan,
Ikhusirik laboraria, zela azken estatuan.

III. Gure aitasoak, hal’ikustia, etzena phen’egingarri (1);
Izerditan (2) trenpaturic bertzen hazten ziren ari;
Beren neken (3) saririkan, ezin galda nehorri,
Lege berriac baitzituen, beren herunkan (4) ezari.

Orduan, deskansatu zen, gaicho laboraria:
Ez baitzakien oraino, zer zen ogi xuria;
Gogotik laudatu zuen: Biba, lege berria!
Orai bederen izanen diuc, errecoltaren erdia!

Orai duela ehun urthe, yarri zen Errepublika.

Gueroztik hemen dabila, guri hurbil itzulika;
Estimatu behar dugu haren azken bisita:
Oro anaia ezari gaitu: hau dugu lege pollita.

Harec eman abisu hunac behar ditugu hon etsi;
Oro aditu onduan eta, ez burutikan utzi.
Gauza horren (5) ahaztia, ez othe laitek (6) gaizki:
Ungi egiten duenari, eskerrac bihurt azkarki!

VII Gobernuac igorridu galde hon bat egun hotan:
Deputatu bat eskas duela (7), Pariseko Gamberetan,
Hortakotz gerthatzen dela, langile beharretan,
Badugunez hango gisaric, (8) Eskual herri hotan.

Entzun dudan bezain laster, ezpainez egin (9) dut irri (10),
Bainan eztut orai artio hori salhatu nehorri:
Deputatu churidenik eztute hartu nahi
Gorriak (11) baizik ez hartzekotz, gan bedi Murde Berdoly!

Etsamina egin dezagun, oroc ichil-ichila.
Ez gira ibili (12) behar falta eztenaren bilha.
Yaun hori gauza guzietan espirituz da abila.
Nausiac maithatuco du, bere gostuko muthila.

Gobernuac zuretakeo, badauca amodio,
Zu behar zira han sarthu, horidela medio;
Sehi huna (13) nahi dute, izanik ere kario:
Muthil tcharrac nehorentzat, deusik ezdu balio!

Murde Berdoli barkha zadazut hartu dudan ausartzia;
Sartzen ezbazira ere har zazu pazientzia;
Gobernuaz ez baitzira oraino ahantzia,
Kampotic ere izanen duzu, galdatzen duzun grazia.

Zaharrari (14) gogua huntzen bersu emaiten hasita;
Aiten phenez orhoitu eta, bihotza hasten yauzica
Bainan ezpaitut probetchuric dolore hortan sar eta
Guzien dako barber (15) izan da: Biba Errepublika!!

Jn.-Bte OXALDE. Poète basque âgé de 80 ans.

(RB 36, 1893-VIII-6, 2. or.).³

³ Réveileko testuak dio: (1) egingari. (2) Izerdutan. (3) naken. (4) sic. (5) horen. (6) sic. (7) duela. (puntu). (8) gisaric. (puntu). (9) egui. (10) iri. (11) Goriak. (12) ibila. (13) hune. (14) Zaharrari. (15) basber.

BIBLIOGRAFIA

- BILBAO, J. 1977. *Eusko Bibliographia*. T. VII.
- DÍAZ NOCI, J. 1994. *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza.
- Eskualduna* (1887-1903).
- HIRIART-URRUTI, Jean. 1971. *J. Hiriart-Urruty. Mintzaira, Aurpegia: Gizon!*. Arantzazu-Oinati: Jakin. P. Lafitteren hitzaurrearekin.
- 2004. *J. Hiriart-Urruty. Ni kazeta-egilea naiz*. Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa. Bilbao.
- IRIGOIEN. 1888. Irigoienek L. Etxeberriri gutuna, Altzürükü, 1888-VI-7. Eskuizkribua (L. Etxeberriren gutunak. E. Goihenetxeren artxiboa).
- LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona, Aintzina.
- 1971. “Aintzin-solasa”, in *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*. Oñati: Jakin.
- LARZABAL, F.B. 1983. “J.B. Elissamburu eta Oxalde, bi “gorri””, in *Piarres Lafitte-ri Omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, Iker-2. 323-338.
- ONAINDIA, S. 1974. *Euskal Literatura*, t. III. Etor.
- OXOBI (J. Moulier). 1950. *Oxalde (1814-1897)*. Eskualzaleen Biltzarra.
- (*Le*) *Pays Basque-Eskual-Herria* (1898-1909).
- (*Le*) *Réveil Basque* (1886-1894).
- SALABERRI, J.D.J. *Chants populaires du Pays Basque, paroles et musique originales, recueillis et publiés avec traduction française par J.D.J. Sallaberry (de Mauléon)*. Baiona: Lamaignère Alarg.-Hordago, 1879.
- URKIZU, Patri. 1991. *Bertsolaritzaren historia. Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*. I. Anonimoak. Etor.
- 2000. “S XIX”, in *Historia de la literatura vasca*. Madrid, UNED.
- VILLASANTE, Fr. L. 1979. *Historia de la Literatura Vasca*. Editorial Aranzazu. 2. edizioa.
- VINSON, Julien. 1891. *Bibliographie de la langue basque*. I. Paris. —1970. Oosterhout, Pays-Bas: Anthropological Publications. (aipamenetan beti 1970ko edizioko zenbakia ezarri dugu, ez orrialdea). Additions et Corrections. Citations et Références.

(*Le*) *Vrai Basque. Organe des intérêts conservateurs et religieux du Pays Basque*. 1885 bukaera inguruan edo 1886 hasieran–1886). Donibane Lohizunen jalgiazia.

Laburdurak

E: *Eskualduna* (1887-1944).

RB: (*Le*) *Réveil basque* (1886-1887).